

# Politika fiskal justu eta solidarioaren aldeko deklarazioa

## Kalitate oneko zerbitzu publikoen eta babes sozial hobearen alde

Idazki honen bidez, egungo politika fiskalarekin ez nagoela batere ados adierazi nahi dut eta honako alde hauek erabat **ERREFUSATU** nahi ditut:

- Enpresariak mesedeko tratua jasotzen dutela eta, bien bitartean, langileon errenten gaineko presio fiskala handitzen da.
- Ondasunak gehitzen badira, hau ez da gainontzeko errentekin batzen, ez dituzte zergak PFEZen eskalan ordaintzen eta %15eko tasa finkoa dute.
- PFEZa gero eta injustuagoa da (ez da jasotzen denaren arabera ordaintzen) eta errenta altuenen zerga-tasa murriztu da (gehien irabazten dutenek gero eta gutxiago ordaintzen dute)
- Zeharkako zergen etengabeko igoera (BEZa...)
- Enpresariei iruzur fiskala egiteko aukera ematen zaie.
- Etekin fiskalek, zergetatik ateratakoa heren batean murrizten badituzte ere, honek ez diete errentarik baxuenei mesederik egiten.
- Ezin dezakegu Euskal Herrian behar dugun politika fiskala erabaki.

Zergak honako hauetara bideratzeko **ESKATZEN DUT**:

- Zerbitzu publikoak hobetzera.
- Babes sozialerako gastua (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, pentsioak eta bazterkeria soziala) Europako batez bestekoarekin parekatuz.
- Pentsio duin eta nahikoak bermatuko dituen segurtasun sozial publikorako sistema propioa garatzera.
- Zerbitzu soziokomunitario publikoen garapenerako.
- Gure ehun ekonomikoaren garapenera bideratutako inbertsio publikoa sustatzera.
- Emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzera.
- Gazteei etxebizitza lortzea erraztera.
- Euskara berreskuratuz.

**Sarrera fiskalak honako hauen bidez handitzeko EXIJITZEN DUT:**

- Iruzur fiskal eta ezkutuko ekonomiaren kontra borrokatzeko borondate politikoa eta hauekin amaitzeko neurri eraginkorrak hartzeko.
- Kapitalaren errentei zergak handitzeko.
- PFEZen progresibitatea errekupearatzeko, gehien dutenek gehiago ordain dezaten.
- Gure burujabetza fiskalaren aldeko borroka tinkoa bultzatzeko

**Gastu soziala handitzeko EXIJITZEN DUT, hauex lortzeko:**

- Kalitate oneko enplegua sortzeko plan eraginkorra.
- Soldata sozial duin eta nahikoa ezartzeko.
- Pentsio publikoak handitzeko.
- Ikerkuntza eta garapenerako inbertsio publikoa bikoizteko.
- Etxebizitzaren prestaketara bideratutako baliabideak hirukoizteko (alokairu publikoa, birgaitzea, hutsik dauden etxebizitzak, babes ofiziala).
- Euskalduntze plan eraginkorra.
- Zerbitzu soziokomunitario publikoen sare integrala.

IZEN-ABIZENAK \_\_\_\_\_

EHNA: \_\_\_\_\_ ENA: \_\_\_\_\_

SINADURA: \_\_\_\_\_